

2173/2025 EBAZPENA, abuztuaren 25ekoa, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtuko ESiko Kardiologiako (Kardiologia klinikoa) atal sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen maiatzaren 26koa 1181/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Bilbo-Basurtuko ESiko Kardiologiako (Kardiologia klinikoa) atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko ekainaren 13ko EHAA 111 zk. eta 2025eko ekainaren 23ko BOE 150 zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko uztailaren 14an amaitu zen.

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen uztailaren 23koa 1930/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Kardiologiako (Kardiologia klinikoa) atal sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I.eranskina)

Bigarrena.– Balorazio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2025eko abuztuaren 25a.

Bilbo-Basurtuko zuzendari gerentea
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO



Osakidetza
BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO
ZUZENDARI GERENTE
DIRECTOR GERENTE
Iz. Fdo.: Jesús Larrañaga Garitano



I. ERANSKINA

**BILBO-BASURTUKO ESIKO KARDIOLOGIAKO (KARDIOLOGIA KLINIKOA) ATAL
SANITARIOKO BURUA IZENEKO LANPOSTUA**

ONARTUEN ETA BAZTERTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

Onartuen behin betiko zerrenda:

- Maria Fe Arcocha Torres and.

Baztertuak:

- Inor ez

II. ERANSKINA**BILBO BASURTUKO ESIKO KARDIOLOGIAKO (KARDIOLOGIA KLINIKOA) ATAL
SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA BALORAZIO BATZORDEA****Batzordeburua****Titularra: Alejandra Gil Molet and. (Bilbo-Basurtu ESIko zuzendari medikoa)**

Ordezkoa: Juan José Timiraos Fernandez jn. (Araba ESIko zuzendari medikoa)

Lehenengo kidea:**Titularra: Isabel Camargo Ibarra and. (Bilbo-Basurtu ESIko zuzendariorde medikoa)**

Ordezkoa: Olga Merino Ochoa and. (Bilbo-Basurtu ESIko zuzendariorde medikoa)

Bigarren kidea:**Titularra: Jose Miguel Ormaetxe Merodio jn. (Bilbo-Basurtu ESIko Kardiologiako
zerbitziburua)**

Ordezkoa: Jon Orruño Aguado jn. (Araba ESIko Kardiologiako zerbitziburua)

Hirugarren kidea:**Titularra: Alberto Salcedo Arruti jn. (Barrualde-Galdakao ESIko Kardiologiako
zerbitziburua)**Ordezkoa: Pedro María Montes Orbe jn. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Kardiologiako
zerbitziburua)**Laugarren kidea (IVAPek proposatua):****Titularra: Roberto Blanco Mata jn. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Kardiologiako
atalburua)**

Ordezkoa: José Luis Francisco Matías jn. (Barakaldo-Sestao ESIko Kardiologiako atalburua)

Idazkaria:**Titularra: Maite Yeregui Huarte and. (Bilbo-Basurtu ESIko langileen zuzendariordea)**Ordezkoa: Maitane Arrizabalaga Kaltzakorta and. (Barrualde-Galdakao ESIko langileen
zuzendariordea)